



# Ikusi eta ukitu

**ASTEBURUKO TXANGOIA**



Santxotena tailer museoan,

Artziniéga

Obrak ikusteaz gain, ukitzeko aukera ere badaigo Artziniégako Santxotena tailer museoan. Ez da hori, baina, museoaren berezitasun bakarra, artistaren obrak ez ezik, artista bera lanean ikusteko eta artistarekin harreman zuzena izateko aukera baitago

Egurrezko eskulturek osatzen dute Xabier Santxotena artistaren altxorra. Pieza txikiak dira batzuk, erdi bidekoak beste batzuk, baina, gehientsuenak, handi-handiak dira. Egurrez eginak dira guztiak; agota izaki, egurra lantzen eta moldatzen artista baita Santxotena. Zuraren eskulangintzarekin lotuta egon den familia bateko semea da Santxotena. Aita, aitona eta aurrekoak



artisauek ziren, eta egurra lantzen zuten.

1970ean hasi zen egurrezko eskulturen lantzen, Jorge Oteiza eskultore handiak animatuta. Sortutako egurrezko lanak ikusgai jaritzeko museoan zabaldu zuen 1998an, Arizkungo Bozate auzoan, Nafarroan. «Gure familiako etxea da museo. Historia, artea eta tradizioa uztartzen ditu museoak. Aitaxi eta amatxiri egindako omenaldia da. Agotak bazterturiko giza taldea izan zen, baina inork ez daki azaltzen zergatik izan ziren baztertuak. Museo hartan ematen dira azalpenak», argitu du Santxotena artistak.

Urte batzuk geroago, 2003an, bigarren museo bat zabaldu zuen: parke museo. Natura eta artea

uztartzea ditu helburu bigarren museo horrek. Orotara, 35.000 metro koadro ditu parkeak. Ere mu zabal horretan hainbat borda eta laurogei eskultura handi ikus daitezke. Eskultura erraldoien arteetik pasea daiteke, eskulturak ukituz eta besarkatuz. «Elbarrientzako erabat egokitutako parke museo da. Elbarriak euren kasa ibil daitezke parketik eta bordetatik. Gainera, itsuentzako gidara edo katalogo ere prest dugu; ONCE elkarteak egina zuten», zehaztu du artistak.

## Lan prozesua ikusgai

Ez da hor amaitzen, baina, Santxotenenaren eskaintza, iazko maiatzaren haren tailerreko atea zabaltzea erabaki baitzuen, bisitariak nola lan egiten zuten ikus zezaten, bertatik bertara. Artziniégan, Araban, zabaldu du hirugarren museo.

«Oso bestelako museo da. Gisa honetako bakarra. Museoetan, normalean, piezak baino ez dira ikusten, baina ez da ohikoa izaten artista bera museoan bertan egotea. Nik hemen dut nire tailerra, hemen lan egiten dut. Era berean, beste museoetan ez da ikusten lanaren prozesua. Hemen, baina, eskultura nola sortzen den ikusten da, zirriborroetatik hasi eta azken emaitzara arte», azpimarratu du artistak.

Ezohikoa, berezia da, beraz, Artziniégako museo. Ikuslearen eta artistaren arteko harremana zuzeneko da. Bolumenaren eta formaren laborategian hasten da bidaia, eta abstrakzio sinbolikoan amaitzen.

Bi solairu ditu museoak. Goiko partean, zirriborroak eta tamaina ertaineko egurrezko eskulturek daude. Edozein eskultura sortu aurretik, zirriborroak egiten dira. Zer nolako irudia egin nahi den irudikatzen da bertan. Tamaina errealean egindako eskulturen senide txikiak dira. Haiek eredutzat hartuta, benetako eskultura egitea da hurrengo pausoa.

Zirriborroen alboan, egurrekin egindako artelanak ditu ikusgai. Ikusteko bakarrik ez, ukitzeko ere badira lanak. Egurrezko irudi horiek ukitzea, laztantzea nahi baitu artistak. Ukitzeko, egurrak transmiti-

## Zer non



- **Non:** Artziniégako Barrataguren auzoan dago tailer museo, Araban.
- **Zer ikusi:** Eskultura bat sortu arteko prozesu osoa ikus daiteke, zirriborroetatik hasi eta azken emaitzara arte. Zirriborroak, tamaina ertaineko eskulturek zein eskultura erraldoiak daude ikusgai. Eskultura handiak bost familiatan daude banatuta.
- **Bisita gidatuak:** Nork bere kontura ikus dezake museo, bideo bidez azalpenak ematen baitira. Ikasleekin bisita gidatuak egiten dituzte, eta, ondoren, tailerra. Gehienez, 25 laguneko taldeak.
- **Iraupena:** Ordu bete inguru.
- **Behin-behineko erakusketa:** Munduko 60 herrialdeetatik ekarritako 300dik gora jaiotza ikusteko aukera dago, urtarrilaren 30era arte.
- **Ordutegia:** Ostegunetik larunbatera, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Igandeetan, 11:00etatik 14:00etara.
- **Prezioa:** 5 euro da sarrera arrunta. 8 urte arte, doan. 8 eta 12 urte bitartekoak, 3 euro. Taldean joanez gero, 2,5 euro.
- **Informazio gehiago:** [www.santxotena.org/webgunean](http://www.santxotena.org/webgunean) eta (0034) 945-39 66 64 eta (0034) 605-71 78 57 telefono zenbakietan.

tzen duten goxotasuna jasotzeko daude eskulturek. Horrenbestez, begirada ez ezik, eskua ere luza daiteke Santxotena museoan.

## Esperimentatzeko tailerrak

Azpiko aldean, txoko batean daude Santxotenenaren laneko erremintak eta txokoa. Artistaren tailerra, alegia. Alboan, egurrezko eskultura handiak daude, bost gune edo familiatan banatuta: basoa, herri kirolak, gerra eta bakea, planetariuma, emakumezkoak eta heriotza.

Eskultura familia bakoitzeko ikus-entzunezko bat dute prest.



**Munduko jaiotzak.** Xabier Santxotenenaren egurrezko lanen erakusketa dago urte osoan. Abenduan, baina, munduko jaiotzen erakusketa ezarri zuten. Urtarrilaren 30era arte ikus daitezke. JUANAN RUIZ ETA JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

Hala, hiru minutuko bideo labur batean eskultura bakoitzaren esanahia eta azalpena ematen die artistak bisitariari. Bideo horiei esker, nork bere kontura egin dezake bisita. Baina, bisita gidatuak ere badituzte. Ikastetxeentzako, kasu, bisita bereziak daude. Museo bisitatu ostean, egurrekin, buztinarekin eta polixpanarekin lan egiteko aukera dute ikasleek. Materialarekin lan egiteko, irudimena lantzeko eta eskultore txiki bihurtzeko

parada dute, beraz, gazte-txoket. Nahi bezala ikus daitezke artelanak. Era berean, nahi duen oro joan daiteke museoan ikustera. Elbarrientzako ere prestatuta baitago tailerra eta museo. Bisitarien adinaren eta beharren arabera egokitzen dituzte bisitak. Hala bada, inolako zailtasun eta oztoporik gabe parte har dezake tailerretan eta bisitetan ezgaitasun edo elbarritasunen bat duen bisitariak ere.